

ZIRRIBORROA

2024KO OTSAILAREN 5EKO TOKIKO GOBERNU BATZARRA

Lazkaoko Udaletxean, bi mila eta hogeita lauko otsailaren 5ean, arratsaldeko bostetan, Lazkaoko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarra bildu da, aurrez honetarako deialdia egin delarik, Kepa Zubiarrain Erauskin Alkatearen lehendakaritzapean. Bertaratutako zinegotziak honako hauek dira: Amagoia Naldaiz Mingo, Aitor Altuna Oiarbide, Joxemai Ormazabal Sukia eta Maialen Amundarain Irizar.

Idazkari lanetan Idoia Garmendia Callejak dihardu.

I.- AURREKO AKTA.-

Alkateak bilkurari hasiera eman ondoren, bertaratutakoen onespenera aurkeztu da 2024ko urtarrilaren 22an egindako ohiko bilkurako akta, eta idatzita dagoen moduan onartu da.

II.- FAKTURAK.-

Ondoren, Udaletxera azkenaldi honetan etorri diren fakturak aztertu dira.

Fakturak aztertu ondoren, 2024ko ekitaldiko aurrekontuari dagokion 5 zenbakidun zerrenda, BERROGEITA HAMAİKA MILA BERREHUN ETA BERROGEITA HAMAZAZPI euro ETA SEI zentimokoa (51.257,06 €), bere espedientean dagoena, onartzea erabaki da.

III.- ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.-

Ondoren, premiak eraginda eta hurrengo Tokiko Gobernu Batzarraren bilkura epe laburrean egingo ez zenez, alkatetzaz onartutakoen berri eman da.

Tokiko Gobernu Batzarra jakinaren gainean gelditu da.

IV.- ZUBIZKITZA AUZOKO 2. FASEA BERRURBANIZATZEKO OBREN KONTRATAZIO ESPEDIENTEA ETA LIZITAZIO DEIALDIA.-

Udal honen eskariz, Soroa Arquitectos S.L.P.ko Miguel Angel Irazabalbeitia eta Pedro Izaskun arkitektoek, Zubizkitza auzoko 2. Fasea berrurbanizatzeako proiektua idatzi dute.

Proiektuaren xedea Zubizkitza auzoaren zati bat berrurbanizatzea da, zehazki, 2. faseak espaloiak eta auzoko 31. zenbakitik 50. zenbakira bitarteko etxebizitzetara eragiten dieten azpiegiturak berrurbanizatzeko obrak definitzen ditu.

Proiektu honen aurrekontua 229.332,83 €-koa da. Zenbateko honi dagokion BEZa erantsi beharko zaio.

Beste alde batetik udal zerbitzu administratiboek kontratazio espedientea prestatu dute, lanak lehiaketa bidez esleitzeko.

Hau guztia horrela, gaia aztertu ondoren, eta hirigintza batzorde informatzailearen proposamenaren aurrean, gaia bozketan jarri da eta Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, aldeko 3 boto (EAJ), aurkako botorik gabe eta 2 abstentzioz (EH Bildu), honako akordioak hartu ditu:

- 1.- Zubizkitza auzoko 2. fasea berrurbanizatzeko proiektua onartzea.
- 2.- Lanak lehiaketa bidez esleitzeko kontratazio espedientea onartu eta lizitazio deialdia egitea.

V.- SAN BENITO IKASTOLAKO JOLASTOKIAREN ESTALIA EGITEKO OBREN KONTRATUA (IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L., 2018): BERME ITZULKETA.-

2018ko maiatzaren 4ean, Tokiko Gobernu Batzordeak San Benito ikastolako jolastokiaren estalia egiteko obraren kontratua IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L. enpresari esleitu zion, eta beronek 17.075,31 €-ko abala aurkeztu zuen Udalean, obra zuzen eta behar bezala burutzeko berme gisa.

Kontratua eta, beraz, berme-epea amaiturik, IPARRAGIRRE ERAIKUNTZA LANAK S.L.-k 2024ko urtarrilaren 22an Lazkaoko Udalaren erregistro elektronikoan sarrera eman dion eskaeraren aurrean, eta Udal teknikariak burutu duen txostenean oinarriturik, Tokiko Gobernu Batzorde honek, aho batez, 17.075,31 €-ko behin-betiko bermea deuseztatzea erabaki du.

VI.- SASIETA MANKOMUNITATEAREN 2023KO EKARPENAREN ERREGULARIZAZIOA ETA 2024KO EKARPENA

Sasieta Mankomunitateak, bera osatzen duten Udalek 2023an egindako ekarpenen erregularizazioa egingo duela jakinarazi du. Hori dela eta, Lazkaoko Udalari 317,16 € itzuliko dizkio.

Honez gain, Udal hauek 2024an egin beharreko ekarpenak ere planteatu ditu.

Planteamendu horren arabera Lazkaoko Udalaren 2024ko behin-behineko ekarpena 588.904,80 € izango da.

Honen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, gaia aztertu ondoren, Sasieta Mankomunitateari, 2024 urtean, 588.904,80 €ko ekarpena onartzea erabaki du aho batez.

VII.- EUSKARA ARLOKO DIRULAGUNTZAK.-

Euskara batzordeak egindako proposamenen aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako erabaki hauek hartu ditu:

Goierriko Hitza eta Goierrri Telebistari.-

Biztanleko 2 € ematearen irizpidea jarraituz, orain bakoitzari 6.013 €ko lehen zatia ordainduko zaio.

Ordainketa 2024ko aurrekontuaren ondorengo partida hauetatik egingo da:

- Goierrri Telebistari 471.01.491.00 partidatik
- Goierrriko Hitzari 471.02.491.00 partidatik

Proposamena egiteko erabili den biztanleen zenbatekoa Lazkaok 2023-01-01era zeuzkan biztanleen zifra ofiziala izan da.

Euskara ikasten ari direnei.-

2023/2024 ikasturtean euskara ikasten bukatu duten ikasleei dirulaguntzaren ordainketa egitea baldintzak bete dituztelako. Bi ikasle izan dira eta emango zaien kopurua 694 €-koa da. Bakoitzari 347 € dagozkio.

Ordainketa partida honetatik egingo da: aurrekontuaren 1 480.01.335.00 partidatik.

VIII.- OSASUN ARLOKO DIRULAGUNTZA

Alkatetzatik egindako proposamenaren aurrean, Tokiko Gobernu Batzarrak honako dirulaguntza hau onartu du:

- Lau Katu Lazkao - Katuen babeserako elkarte.-

Bere jarduera babestu eta diruz laguntzeko, 2024ko aurrekontuan aurreikusitako 3.000 €-tatik, orain 2.000 €-ko dirulaguntza ematea.

Ordainketa udal aurrekontuaren 1 481.01.311.00 partidatik egingo da.

IX.- GALDERA ETA ERREGUAK.-

Ez da galdera edota erregurik egon.

X.- BILERAREN AMAIERA.-

Eta eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkateak bilera amaitutzat jo du, arratsaldeko bostak eta hogeirenean eta nik, Idazkariak, guztiaren akta jaso eta ziurtatzen dut.